

HONDARTZA BIZI PROGRAMAREN INFORMAZIOA

1.- SARRERA:

Gehilan 2000 Aholkularitza integrala da, gizarte- eta ekonomia-garapenarekin konprometituta. Gure helburu nagusia da langilearen **enplegua aurkitzeko gaitasuna** eta enpresaren **lehiakortasuna** hobetzen dituzten egitasmoak proposatu eta lantzea.

Gure lehia nagusienetako bat da langabezia dauden langileei lan merkaturako sarbidea erraztea, alderdi guztiak landuta, Lanbide Orientabidetik hasita, Gaitasunetan Trebatzea, eta era berean lan eskaintzak modu aktiboan bilatzen laguntzen dugu.

2- PROGRAMAREN HELBURUA

- Areetako hondartzan mugikortasun mugatua duten pertsoneri zerbitzuak eskaintzea
- Mugikortasun mugatua duten pertsoneri zuzendutako zerbitzua abian jartzea.

3- PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

- Hondartzan Bizi Zerbitzuan, jarduerak diseinatu eta martxan jartzea.
- 8 begirale kontratatzea, lanaldi erdiz, zerbitzu horiek martxan jartzeko uztailean, abuztuan eta irailean, 2015eko ekainaren 22tik irailaren 22ra.

4- KONTRATUAK, EGINKIZUNAK ETA ORDAINSARIAK.

Lanaldi partzialeko 8 kontratu egitea aurreikusten da, eta iraupena 2015eko ekainaren 22tik irailaren 22ra izango da.

Kontratatutako pertsonen egin beharreko lanak hauexek izan litezke, gutxi gorabehera:

- ☒ Mugikortasun mugatua duten pertsonen Begiralearen lanak
 - Plataforma eta hesiz itxitako esparruak egunero egokitzea.
 - Hondartza Bizi zerbitzua kudeatzea
 - Makuluen mailegua
 - Urlehorreko aulkiarekin itsasoan bainua hartzen laguntzea
 - Batetik bestera mugitzeko beldar katezko ibilgailua erabiltzea

- Elkarreterako eta zerbitzura joaten diren pertsonentzat jarduerak prestatzea (ariketak, gimnastika...)
- Hirugarren Adinekoen elkarrekin, egoitzekin.... harremanetan jartzea zerbitzua zabaltzeko.
- **Bidaideak** elkarrekin harremanetan jartzea, beraiek hitzartutako zentroen garraioak eta bisitaldiak kudeatzeko.
- Egunero artatutako erabiltzaileak erregistratzea
- Oroit-idazkia.
- Programaren arduradunarekin koordinatzea.

Langileak aldi baterako kontratatuko dira, "obra edo zerbitzua amaitu arteko" motako kontratuak eginda, eta "EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeek - Irakaskuntza Espezializatua" (8602645 hitzarmen-kodea) lege ezarritako hileko ordainsari gordinak jasoko dituzte, lanpostuari eta lanbide-mailari dagozkien arabera.

Kontratuetan probaldia izango da langileentzat.
Eskaintako lanpostuak honako hauek dira: 8 begirale

- Lanpostua: Begiralea
- Lanbide-maila: Begiralea.
- Hitzarmen aplikagarria: "EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeek - Irakaskuntza Espezializatua"
- Iraupena eta lanaldia: Iraupena: 2015eko ekainaren 22tik irailaren 22ra. Aldi horretan sartuta daude tokatzen diren oporrak.
- Kontratu mota: Lan nahiz zerbitzu jakin baterako kontratua.
- Lanaldia: % 50
- Probaldia: Hilabetekoa.
- Urteko ordainsari gordina, gutxi gorabeherakoa, lanaldi osoan: 18.016,6 €
- Lanpostu kop.: 8

- Zerbitzua zabalik egoteko ordutegia astelehenetik larunbatera 10:00etatik 19:00etara izango da.
- Txandaka egingo da lana.
- Astean bi egun libre (igandea eta beste egun bat, astelehenetik larunbatera)
- Jaiegunetan lana egingo da.
- Enpresa kontratatzaileak ezarriko du lan-egutegia, lehenengo lanegunean emango dena.

5 - PARTE HARTZAILEAK HAUTATZEKO BALIOESPEN BATZORDEA

Balioespen Batzordeak egingo du hautaketa, eta batzorde horretan parte hartuko dute Gehilan 2000ko teknikariek; enpresa hori udal eta erakunde publikoetarako enplegu programak martxan jartzen espezializatuta baitago.

Gehilan 2000 enpresak dokumentu honetan zehazten den hautaketa prozesua ezarriko du, eta oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera, eskatutako profila bete eta aurkezten dituzten eskaeren dokumentazioa barematuko du.

Batzordearen esku geratuko da argitu beharrekoak argitzea eta hautatze prozedura behar bezala bideratzeko hartu beharreko erabakiak hartzea. Kasua hala balitz, hautagaiek ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren akatsak konpondu edo/eta erreklamazioak aurkezteko epea zabaltzeko aukera balioetsiko du batzordeak.

6.- HAUTAKETA PROZESUA

BETEBEHARRAK

- Espainiako hiritartasuna izatea, Europar Batasuneko herrialde bateko kide izatea, eta Europar Batasuneko ia izango ez balitz Espainian legez bizitzeko eta lan egiteko baimenak izatea.
- Hemezortzi urte (18) beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako gehienezko adinera iritsia ez izatea.
- Langabezian egotea, erabateko prestasuna izatea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea, bai eskaera aurkezteko unean baita kontratatzeko unean ere.
- Zierbenako udalerrian erroldatuta egotea 2014ko urtarrilaren 1a baino lehendik.
- Lehen Hezkuntzako Eskola egiaztagiria, Eskola Graduatuaren edo D.B.H.ko graduatuaren agiria
- Alta eman Gehilan 2000 enpresaren web-gunean www.gehilan2000.com / enplegua / sartu CV

Hautatze prozesuak lehiaketa fasea izango du.

A) LEHIAKETA ALDIA

Hautagaiek ekarritako dokumentazioa honako irizpide hauen arabera balioetsiko da:

- 1 - **Lan-gizarte egoera:** gehienez 15 puntu.
- 2 - **Euskararen ezagutza:** gehienez 4 puntu.
- 3 - **Prestakuntza, praktikak, esperientzia, udal programak:** gehienez 31 puntu.

PUNTUATZEKO IRIZPIDEAK

"LAN ETA GIZARTE EGOERA" ATALA

- 1 - **Laguntzak kobratzea:** gehienez 6 puntu

- a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) titularra izanez gero: 6 puntu.
- b) Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) kobratuz gero: 6 puntu.
- c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak tramitatutako Udal Laguntzaren bat kobratuz gero: 6 puntu.

2 - Zierbenako udaleko Gizarte Ongizaterako Zerbitzuak balioetsitako beharkizun-egoera: gehienez, 5

- Atalaren txostena, beharkizun handikoa: 5 puntu.
- Atalaren txostena, beharkizun ertainekoa: 3 puntu.
- Atalaren txostena, beharkizun apalekoa: 2 puntu.
- Atalaren txostena, beharkizunik ezakoa: 0 puntu

Oharra: Beharkizun txostena Zierbenako udaleko Gizarte Ongizaterako Zerbitzuak idazten du, eta erakunde adjudikaziodunari ematen zaio. Bertan balioetsi egiten da hautagaiaren beharkizun maila, eta dokumentu pribatua da, erakunde kontratatzailearen eta Gizarte Ongizaterako Zerbitzuaren artekoa. Txostenik ez izateak "zero" (0) puntu lortzea dakar.

3 - Langabezian egindako denbora: gehienez 4 puntu

- Langabezian egindako denbora: 36 hilabetekoa edo hortik gorakoa: 4 puntu
- Langabezian egindako denbora: 24 eta 35 hilabete bitartekoa: 3 puntu
- Langabezian egindako denbora: 12 eta 24 hilabete bitartekoa: 2 puntu
- Langabezian egindako denbora: 12 hilabetetik behera: puntu 1

Oharra: Langabezian egindako denbora neurtzeko kontuan hartuko da Lan-bizitzan agertzen den azken enpresan baxa emandako data.

"EUSKARAREN EZAGUTZA" ATALA

4 - Euskararen ezagutza: 4 puntu gehienez.

- a) Euskararen ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu ofizialaren arabera emango dira honako puntu hauek:
 - HAEEK ematen duen 3. hizkuntza eskakizuna, HABEren 3. mailako ziurtagiria, Osakidetzaren 3. hizkuntz eskakizuna, Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna, Eukararen Gaitasun Agiria (EGA), Nafarroako Eukararen Gaitasun Agiria (EGA), EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko Gaitasun Maila edo 5. ikasturtea eta Madrileko Hizkuntza Eskola ofiziala eta zentralarena (ikasketa plan zaharra),

Euskaltzaindiaren D mailako agiria, Irakasleen 2. hizkuntza eskakizuna; Gaitasun mailako ziurtagiria, maila operatiboa eraginkorra menderatuta, EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialek emanikoa (ikasketa plan berria)..... 4 puntu.

- HAEEn 2. hizkuntza eskakizuna, HAEEn 2. mailako ziurtagiria, Osakidetzaren 2. hizkuntz eskakizuna, Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizuna, Irakasleen 1. hizkuntza eskakizuna, EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. ikasturtea (ikasketa plan zaharra), EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko maila aurreratua (ikasketa plan berria).....3 puntu.
- HAEEn 1. hizkuntza eskakizuna, HAEEn 1. mailako ziurtagiria, Osakidetzaren 1. hizkuntz eskakizuna, EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. ikasturtea (ikasketa plan zaharra), EAEko eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialeko Tarteko maila (ikasketa plan berria).....Puntu 1.
- Euskaraz egindako batxilergo ikasketak edo goragoko mailakoak.....4 puntu

“PRESTAKUNTZA, ESPERIENTZIA ETA UDAL PROGRAMAK” ATALA

5.- Programaren arabeko prestakuntza maila: (Gehienez 10 puntu.)

LHI/EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloa) titulua Klinika-laguntzailea, Osasun-gizarte mailako Laguntza, Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ) – Gizarte- eta kultura-animazioa titulazioa.....10 puntu

Balioetsiko dira unibertsitate tituluak ere: Erizaintza, Medikuntza, Psikologia, Gizarte lana, Gizarte heziketa, Fisioterapia.....8 puntu

6.- Hautagaiaren prestakuntza osagarri frogagarria, programaren arabekoa: 10 puntu gehienez

- Osasun arloko edo aisialdiko ikastaroak, 100 ordukoak edo gehiagokoak.....2 puntu ikastaro bakoitzeko
- Osasun arloko edo aisialdiko ikastaroak, 20 ordukoak edo gehiagokoak eta 100 ordu baino gutxiagokoak.....puntu 1 ikastaro bakoitzeko
- Osasun arloko edo aisialdiko ikastaroak, 20 ordu baino gutxiagokoak0,5 puntu ikastaro bakoitzeko

* Ez da onartuko ordu kopururik zehazten ez duen titulurik.

7.- Boluntariorien esperientzia eta esparru horretan egindako praktikak: puntu 1 gehienez

* Bakarrik onartuko dira praktika-ordu kopurua edo boluntariorien denbora zehazten duten ziurtagiriak.

8.- Programari lotutako lan esperientzia: 5 puntu gehienez

- Bi hilabeteko edo gehiagoko esperientzia osasun arloan edo begirale lanetan..... puntu bat, bi hilabete edo frakzioko; gehienez 5 puntu.

* Aurkeztu Lan bitzita eta kontratuak. 2 hilabete 60 egun dira.

9.- 2012-2013an Zierbenako udalak edo beste erakunde batzuen bitartez hilabete bat baino gehiago zuzenean kontratatuta ez egotea udalaren enplegu programatan (Gehilan 2000, Integrandoko Fundazioa, Efficient, Behargintzak, Elkarte Publikoak, Toki Erakunde Autonomoak, Udaleri lotutako erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak...)...... 5 puntu.

* Hilabetea 30 eguneko da.

Hautagai bakoitzak amaieran lortutako puntuazio osoa merezimenduak balioesteko aldiko puntuak batuta aterako da. Puntuazioan berdinketa sortuz gero, lehentasuna izango dute alor horretako esperientzia handiagoko hautagaiak; berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna izango du langabezian denbora gehiago daraman hautagaiak.

Ezin izango dute inola ere programan parte hartu eta lan egin familia bakoitzeko lagun batek baino gehiagok, lan eskatzaile gehiago izan ezik eta lanpostuak bete gabe geratu izan ezik.

7.- AGIRIAK

NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- NAN / AIZ txartelaren fotokopia, eta kasua hala balitz, lan-baimenarena eta egoitza-baimenarena
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondako aldien dokumentua, hautaketa prozesuan sartu arte eguneratuta.
- Lan-bizitzaren agiri eguneratua, Gizarte Segurantzak 2015eko maiatzeko/ekaineko hilabetean emanda.
- CV eguneratua, karnet tamainako argazki batekin.
- Errolda agiri eguneratua, Zierbenako udalak 2015ean emana.
- Lehen Hezkuntzako Eskola egiaztagiria, Eskola Graduatuaren edo D.B.H.ko graduatuaren agiria
- Alta eman Gehilan 2000 enpresaren webgunean www.gehilan2000.com / enplegua / sartu CV
- Laguntzak edo prestazioak (DBH, GLL, edo udalaren oinarritzko gizarte zerbitzuek tramitatutako bestelako laguntzak) jasotzen direla egiaztatzen duten dokumentuak.
- Euskararen ezagutza mailaren egiaztagiria edo euskaraz egindako ikasketen titulua.
- Programari lotutako prestakuntzaren egiaztagiriak (ziurtagirien eta tituluen fotokopiak).
- Boluntariotzan esperientzia eta esparru horretan egindako praktikak. Erakunde arduradunak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko dira jarduera, eginkizunak eta emandako orduak, guztiak hala jasota.
- Esparruko lan esperientzia. Esparruko lan esperientzia kontratuen kopien edo enpresa ziurtagirien bitartez egiaztatuko da.
- Lan bizitza eta egiaztatze kontratuak.

OHARRA: Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko beharrezkoa da Gehilan 2000 enpresaren webgunean alta ematea: www.gehilan2000.com / enplegua / sartu CV

8.- EPEAK ZAINTEA ETA AGIRIAK AURKEZTEA.

Enplegu programan parte hartzeko interesa dutenek Zierbenako Kultur Etxean entregatu beharko dute (Gehilan 2000 enpresaren izenean) ezarritako epean eskatutako nahitaezko dokumentuak. Horrez gain, hala nahi izanez gero, oinarrietan jasotako balioespen irizpideak betetzen direla egiaztatze dokumentuak ere eman ahal izango dira, lehiaketa aldian puntu gehiago lortze aldera.

Beharrezkoa estimatuz gero, Balioespen Batzordeak hautagai bakoitzari dokumentazio gehiago eskatu ahal izango dio lan- eta bizitza-egoerak zuzen balioetsi ahal izateko, edo/eta hautagaien gizarte- eta ekonomia-egoerak definitzeko beharrezko irizten dioten txostenak eskuratu ahal izateko.

Enplegu programarako hautagaitza prozesua arautzen duten oinarriak Zierbenako Udaleko webgunetik deskargatu ahal izango dira (www.zierbena.net) baita Gehilan 2000 enpresaren webgunetik ere (www.gehilan2000.com).

Baita ere zuzenean jaso ahal izango dira 09:00etatik 15:00etara Zierbenako Kultur Etxeko bulegoetan bertaratuta (San Roman auzoa, 6B, 48508 – Zierbena) edo Gehilan 2000 enpresaren bulegoetan (San Juan auzoa, 2 – Muskiz) 09:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera arte.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Programan parte hartzeko dokumentazioa aurkezteko epea zabalik egongo da **2015eko maiatzaren 28tik ekainaren 5era arte (13:00etara arte).**

2015eko ekainaren 12an argitaratuko da hautaketa prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

Hautatuko pertsonen zerrenda horretan agertzen ez direnak prozesutik baztertutakotzat joko dira, ez dutelako bete eskatutako beharkizunak edo/eta ez dutelako entregatu epe barruan eskatutako nahitaezko dokumentazioa.

ESKARIAK AURKEZTEKO LEKUAK:

Enplegu programan parte hartzeko dokumentuak epe barruan (**2015eko maiatzaren 26tik ekainaren 5era arte, 13:00etan**) entregatu beharko dira Kultur Etxeko bulegoetan (Gehilan 2000 enpresaren izenean):

Kultur Etxea

San Roman auzoa, 6B

48508 - Zierbena

Telefona: 94 636 60 07

Herritarren arretarako ordutegia: 09:00 - 15:00

Gehilan 2000 enpresaren informaziorako posta elektronikoa:
gehilan@gehilan2000.com

Telefono zenbakia: Gehilan 2000 – 94 6708194

9 - HAUTAGAIEN ZERRENDA

Hautagaien kalifikazioak amaitu ondoren, lehiaketa faseko merezimenduak puntuatuta, Balorazio Batzordeak argitara emango du **2015eko ekainaren 12an hautagaien behin-behineko zerrenda, baita erreserban utzitakoena ere.**

Ekainaren 15a ezartzen da erreklamazioak aurkezteko eguna, eta ekainaren 19an argitaratuko dira hautagaien behin betiko zerrendak.

10.- BALDINTZAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar berekin. Gehilan 2000 enpresak bere gain hartzen du oinarri hauetan ez datorren beste edozer alderdi arautzeko eta interpretatzeko ahalmena.